

AURKIBIDEA

JAUNAREN AURKEZPENA.....	4
SAN JOSE, MARIA BIRJINA DOHATSUAREN SENARRA.....	10
SAN PRUDENTZIO.....	16
SAN JOAN BATAIATZAILEAREN JAIOTZA.....	22
PEDRO ETA PAULO SANTUAK, APOSTOLUAK.....	28
SANTIAGO, APOSTOLUA.....	34
LOIOLAKO SAN IGNAZIO.....	40
JAUNAREN ANTZALDATZEA.....	46
MARIA BIRJINA DOHATSUAREN ZERURATZEA.....	52
ARANTZAZUKO MARIA BIRJINA DOHATSUA.....	58
GURUTZE SANTUAREN GORAPENA.....	64
SANTU GUZTIAK.....	70
HILDAKO FEDEDUN GUZTIEN OROITZAPENA.....	76
LETRANGO BASILIKA SAGARATZEA.....	82
XABIERKO SAN FRANTZISKO.....	88
MARIA BIRJINA DOHATSUAREN SORTZE GARBIA.....	94
ERANSKINAK:	
I. Hasierako agurra kantuz egiteko doinuak.....	100
II. Damu-otoitzerako beste era batzuk.....	101
III. Fede-aitormena.....	102
IV. Letania-erako esker-otoitzak.....	104
V. Bedeinkapen-eskaria kantuz egiteko doinuak.....	118
VI. Azken-agurra egiteko doinuak.....	119

Otsailaren 2an JAUNAREN AURKEZPENA

Jaia

Jaia igandez gertatzen denean aurea hartuko dio igandeari eta ospatu egingo da.

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Jesus munduko argia dela aitortzen duen sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiek aitaren egingo dute eta erantzungo:

℟. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 100. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Jaungoiko gure Aitak eta Jesu Kristo gure Jaunak eman diezagutela beren grazia eta bakea.

Guztiek erantzungo dute:

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Zuzendariak jarraituko du:

Senideok: Eguberri ondorengo berrogeigarren egunean, Jaunaren aurkezpenaren jaia ospatzen du Elizak, «Kandelario» izenez ezagutzen dena. Israeldarren legeak lehen-semea Jainkoari eskaintzea agintzen zuen; horrela, Jesus Jainkoari eskaintzen ikusten ditugu gaur tenpluan Jose eta Maria. Eta Simeon, fededun zintzo eta jainkozaleak, mundua salbatzera datorren Jesus Jauna herri guztien argi bezala aurkezten du. Horregatik, argi hori ekarri digun Ama Maria Birjinaren oroipen eta gurtza berezia egiten du Elizak egun honetan. Ospa dezagun, bada, jai hau fedez eta pozik elkartean bilduta, gu salbatzearren gure gizatasuna hartu zuen Jainkoari eskerrak emanez.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Senideok: Jesusek dakarkigun argiari leku egin diezaiogun geure bizitzan, eta aitor ditzagun apalki geure bekatuak, Jaunari errukia eta barkamena eskatuz.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, gure izaera hartu nahi izan duzuna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, herri guztiak argitzen dituen Argia zarena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zeure herriaren aintza zaituguna: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (101. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 zure Seme bakarra, gurea bezalako giza izatez jantzirik,
 aurkeztu zuten gaurko egunez Jerusalemgo tenpluan;
 egizu, Jaun handi horrek,
 aurkez gaitezela gu ere bihotz-garbi zure aurrean.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

✠. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A-B-C urteetan

San Lukasek Ebanjelioan, gaur ospatzen ditugun gertakariak agertuko dituen bezala (*Eb.*), lehenengo bi irakurgaiak Jauna tenpluan sartu izana argitzen dute. Malakiasen profezia betetzen du Jesusek, Jauna santutegian agertuko zela esana baitzuen profetak (*1. ir.*); Hebrearrei egindako gutunak Kristoren apaizgoa gogorarazten digu, Jesus tenpluan sartzea, Itun Berriaren apaiz nagusi bezala zeruan behin betiko sartzearen aurrerapen bezala ikusaraziz (*2. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 4.** liburuko 17-20. orrialdeetan daude egun honetakoak. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

*Igandea denez, **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (102-103. or.).*

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa goastera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Jainkoak alai nahi gaitu, zoriontsu, otoitzean lehiatsu eta bere Argiaren testigu. Onar dezagun esker onez Jesus Ogi bizi-emailearen dohaina eta utz diezaiogun gure itxaropena sendo dezan.

Hiru eratarata egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (104-117. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik **Gure Aita** otoitzari sarrera egingo dio:*

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrian ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Emaziozue bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

℟. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Simeonen itxaropena bete duzun Jauna,
emaguzu, Eukaristia honi esker, zeure graziaren betea;
eta egizu, hark, hil aurretik,
Kristo besoetan hartzeko poza izan zuen bezala,
guk ere, Jaunaren bidera goazenok,
betiko bizia irits dezagula.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria (*Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 118. or.*).

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra (*Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 119. or.*).

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

Martxoaren 19an SAN JOSE, MARIA BIRJINA DOHATSUAREN SENARRA Festaburua

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, San Jose-eguna girotuko duen sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiek aitaren egingo dute eta erantzungo:

℟. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 100. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gorets dezagun Jauna eta denok batera bedeinka dezagun haren izena.

Guztiek erantzungo dute:

℟. Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

Zuzendariak jarraituko du:

Senideok: San Jose-eguna ospatzen dugu gaur, Maria Birjina dohatsuaren senar santuaren festaburua. Poz handiz ospatu izan du beti Elizak jai hau, poz horretan bat egitera dei egiten digu fededun guztioi. Jainkoak Ama Birjinari senartzat emandako San Jose gizon zintzoa zela esango zaigu, hau da, Jainkoaren zerbitzari leial eta zentzuduna, Famlia Santuaren buru ezarria eta Jesu Kristoren Elizaren zaindari izendatua.

[Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan:] Martxoaren 19a, bestalde, gure elizbarrutiko Seminarioaren eguna da. Izan ditzagun gogoan gure otoitzean etorkizunean gure parroketan apaiz-ardura beren gain hartzeko prestatzen ari diren gazteak. Aldi berean, gaurko gazteen artean apaizetarako bokazio berriak sor daitezela eskatuko diogu gure Jainkoari.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Isilune labur bat egingez, jar gaitezen Jainkoarekin harremanetan. Eskerrak eman diezazkiogun guretzat duen maitasun handiagatik, eta eska diezaiozun geure bekatuen barkamena.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, Zugan sinesten dutenen indar zaituguna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, zure jarraitzaileen itxaropen zarena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Zugan bizi direnei betiko bizia ematen diezuna: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (101. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Jainko ahalguztiduna,
 gizadiaren salbameneko lehen-misterioak
 Jose santuaren ardua leialaren pean jarri zenituen;
 egizu, haren otoitzari esker,
 Elizak ere zaindu ditzala beti eta eraman bere betera.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

✠. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A-B-C urteetan

San Josek Jesusen bizitzan nola parte hartu zuen erakusten digu Ebanjelioak (Eb.). Lehenengo irakurgaiak Mesias Daviden semea izango denaren profetia agertzen digu (1. ir.). Baina, Jesus Daviden semea bada, Joserengatik da, Daviden oinordeko izanik Maria emazte hartu zuelako. Gutunak, fededunon aita den Abrahamen fedearekin alderatzen du Joserren fedea (2. ir.).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIK 4.** liburuko 32-35. orrialdeetan daude egun honetakoak. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

Jarraian Sinesten dut esango da, guztiak zutik daudela (102-103. or.).

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Elizaren Zaindaria ospatzen ari garen egun honetan, gogoan dugu Berri Ona bizitzeko bokazioak biltzen gaituela eliztar guztiok. Guretzat janari egin zen Jesus gurtu dezagun orain, esker onez, bera dugu-eta ebanjelizatze-lanerako indar-emaile.

Hiru eratarata egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (104.117. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik **Gure Aita** otoitzari sarrera egingo dio:*

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Emaiozue bakea elkarri.

Guztiok, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

℟. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.

Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagrariora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Aldareko janari santuaz ase duzu, Jauna,
zeure kristau-familia hau
Jose santuaren festaburua pozik ospatzen duen egun honetan;
zaindu ezazu beti zeure babespean
eta gorde berarengan
Zuk maitasun handiz emandako dohainak.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 118. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

✠. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 119. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

✠. Eskerrak Jainkoari.

Apirilaren 28an
ARMENTIAKO SAN PRUDENTZIO
Vitoria-Gasteizko Elizbarrutiko Zaindaria
Festaburua

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Zaindari Santuaren festaburua girotzeko sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

✠. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 100. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gorets dezagun Jauna
eta denok batera bedeinka dezagun haren izena.

Guztiak erantzungo dute:

✠. Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

Zuzendariak jarraituko du:

Senideok: Gure Zaindari den Prudentzio gotzain santuaren jai ospatzera bildu gara. Armentian jaioa dugun gizon hau, bakardadean eta otoitzari emanik bizi ondoren, bere santutasun eta zerbitzu-jarreragatik Elizan gotzain ezarria izan zen. Eta elkarren artean banaturik eta haserre zebiltzan herritarrak batasunera erakartzeko eta bakebidean jartzeko dohain berezia agertu zuen. Jaunari eskerrak emango dizkiogu gure herritik sortutako gizon hau gure eredu eta zaindari eman digulako; eta, Prudentzio santua otoitzean lagun harturik, geure Elizaren eta herriaren alde eskatuko dugu ospakizun honetan.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Ospakizun honen hasieratik jar gaitezen, senideok, Jaunaren aurrean. Berak deitu gaitu gaur elkartean jai hau ospatzera, eta batzarraren erdian dugu bera geurekin. Hitz eta Ogi bizi-emaileak eskainiko dizkigu, eguneroko bidean argi eta indar izan ditzagun. Eska diezaiozun lehenengo geure bekatuen barkamena.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, Zugan sinesten dutenen indar zaituguna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, zure jarraitzaileen itxaropen zarena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Zugan bizi direnei betiko bizia ematen diezuna: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (101. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitza.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitza egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Oi Jainko, bakearen iturria,
haserreak banatutako senideen artean berriro bakea ezartzeko
dohain harrigarria eman zenion Prudentzio gotzain santuari;
egizu, haren otoitzari esker zure nahietara bildurik,
bihotzez bat eginik bizi gaitzela beti.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

✠. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A-B-C urteetan

Ezekielen liburuan, galduta dagoen ardiaren bila doan artzain on bezala agertzen zaigu Jainkoa, aurkitu eta sendatu egiten ditu zaurituak (1. ir.). Paulok, berriz, apostolua Jainkoak bidalia dela esango digu: gure bizi berriaren iturri den Kristoren heriotzaren bitartez, Jainkoaren eta gizakien arteko adiskidetzea iragartzeko ministerioa jaso du (2. ir.). Hori guztia Jesusek bezala betetzeko, ordea, ezinbestekoa da zerbitzu-jarrera: «Zuetako handiena izan bedi zuen zerbitzari» (Eb.). Zerbitzua da handi egiten gaituena.

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **VITORIA-GASTEIZKO ELIZBARRUTIKO MEZAKO IRAKURGAIEI BEREZIA** liburuan daude egun honetakoak. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak.

Fede-aitormena

Jarraian Sinesten dut esango da, guztiak zutik daudela (102-103. or.).

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da.

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Jesusen jarraitzaileon ezaugarri dira bihotz-berritzeko gogoia eta Jainkoaren erreinuaren iragarpena egitea, testigantza ematea. Horretarako indartzen gaituen Ogi Santua hartu baino lehen, gurtu eta gorets dezagun elkarrekin gure Jauna.

Hiru erataria egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (104-117. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Emaiozue bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

℟. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.

Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Isuriiezaguzu, Jauna, zeure maitasun-espirtua
Prudentzio gotzain santuaren jaiegunean
mahai bat-berean ase gaituzunok
elkarrenganako maitasunean bat egin gaitzazun betiko.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 118. or.).*

Oharririk egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℞. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℞. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 119. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℞. Eskerrak Jainkoari.

Ekainaren 24an SAN JOAN BATAIATZAILEAREN JAIOTZA

Festaburua

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, San Joan Bataiatzailearen festaburua girotuko duen sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

✠. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 100. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Jaungoiko gure Aitak eta Jesu Kristo gure Jaunak eman diezagutela beren grazia eta bakea.

Guztiak erantzungo dute:

✠. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Zuzendariak jarraituko du:

Senideok: San Joan Bataiatzailearen jaiotza ospatzen dugu gaur. Jaio zenean munduari poz handia ekarri zion; baita erakutsi ere, Jordan ibai ondoan, mundua salbatzera etorria zen Jainkoaren Bildotsa.

Eta zintzotasunean bizi ondoren, bere odola isuriz eman zuen Kristo Jaunaren aitormenik onena. Pozik ospatuko dugu, bada, guk ere, Eliza osoarekin, Argiaren aitormen egitera eta Jaunari bideak prestatzera etorri zen gizon honen jaiotza-eguna.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Isilune batean, aitor ditzagun geure bekatuak eta eska diezaiogun Jaunari, izan dezala guretzat erruki eta bihotz-berri gaitzala jai honen pozean.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, gainetatik agertu zaigun Goiz-eguzkia zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, ilunpetan eta herio-itzalean bizi direnak argitzen dituzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure oinak bakebidean zuzentzen dituzuna: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (101. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Oi Jainko,
zeure Semearentzat herri on-ona prestatzeko
sortu zenuen Joan Bataiatzaile santua;
emaiozu zeure herriari espirituzko pozaren dohaina
eta eraman itzazu zeure fededun guztien gogoak
bake- eta salbamen-bidetik.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

✠ Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A-B-C urteetan Isaiasen bokazioaren berri entzuteak San Joan Bataiatzailea ezagutzen lagunduko digu (1. ir.). San Paulok dioen moduan antzinako bi profeta handienek (Jeremiasek eta Isaiasek) bidea zabaldu zioten Jesusen etorrera prestatu behar zuenari (2. ir.). Ebanjelioan, Joanen jaiotza-kontakizuna entzutean, Jaunak eskatu zion heziera apalaz eta basamortuko bizitzaz jabetuko gara: han bizi izan zen «Israel herriaren aurrean agertu zen eguna arte» (Eb.).

Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. IRAKURGAIAK 4. liburuko 85-88. orrialdeetan daude egun honetakoak. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

Jarraian Sinesten dut esango da, guztiak zutik daudela (102-103. or.).

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Jesus dugu, Joanek iragarri zuen Jainkoaren Bildotsa, egiazko Janaria. Gurtu dezagun pozez eta esker onez beterik.

Hiru eratarata egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitza batekin (104-117. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik **Gure Aita** otoitzari sarrera egingo dio:*

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Emaiozue bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohienez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

✠. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.

Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Zerutar Bildotsaren mahaian indarberritu gaituzu, Jauna;
egizu, Joan Bataiatzailea santuaren jaioteguna
pozez ospatzen duen Elizak
har dezala bere salbazioaren egiletzat
Joanek etortzekoa zela alde zuretik iragarri zuen hura.

Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan

✠. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 118. or.).*

Oharririk egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 119. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

Ekainaren 29an PEDRO ETA PAULO SANTUAK, APOSTOLUAK

Festaburua

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Pedro eta Paulo santuen festaburua girotzeko sarrerakantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

℟. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 100. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gorets dezagun Jauna
eta denok batera bedeinka dezagun haren izena.

Guztiak erantzungo dute:

℟. Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

Zuzendariak jarraituko du:

Senideok: Pedro eta Paulo apostolu santuen festaburua ospatzera bildu gara. Elizaren zutabe nagusi eta fedearen testigu bizi diren Jesusen bi jarraitzaile hauen oroipen pozgarria egitera. Biek, beren biziarekin egin zuten hitzez hots egiten zuten sinesmenaren aitormena. Biak, ospe berean bat eginik goستن ditu esker onez Elizak. Guk ere goспен horretan bat egiten dugu, esker onez, Elizarekin.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Senideok: Fedearen esker onezko ospakizun honen hasieran, gogora dezagun geure ahulezia eta aitor ditzagun geure bekatuak, Jaunari errukia eta barkamena eskatuz.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, apostoluen bidez zure Berri Ona ezagutzera eman diguzuna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, zure Berri Onaren zabaltzaile izatera deitzen gaituzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, apostoluen oinarri gainean eraikitako Elizaren harri bizi egiten gaituzuna: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltzua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (101. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Oi Jainko,
 alaitasun santuz betetzen gaituzu
 Pedro eta Paulo apostolu santuen festaburu honetan;
 egizu, zure Elizak kristau-fedearen lehenengo berria
 haiengandik izan zuen bezala,
 jarrai diezaiela beti zintzo haien irakaspenei.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

✠ Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A-B-C urteetan

Lehenengo irakurgaia eta Ebanjelioa San Pedroz ari zaizkigu gaur, eta bigarrena, berriz, San Paulorena da. Ebanjelioan San Pedoren fede-aitormena eta Jesusen promesa ikusiko ditugu: «Zu Pedro zara –Harkaitza–; harkaitz horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza» (*Eb.*). Eliza osoaren otoitzari esker San Pedro era miragarrian kartzelatik askatua izan zela entzungo dugu Apostoluen Eginak liburutik (*1. ir.*). Gutunak, berriz, San Paulok bere ikasle Timoteori idatzitako azken mezua jasotzen du: Erroman atxilotua dagoelarik, martiritza gertu sumatzen duela esanez (*2. ir.*).

Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. IRAKURGAIAK 4. liburuko 92-95. orrialdeetan daude egun honetakoak. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

Jarraian Sinesten dut esango da, guztiak zutik daudela (102-103. or.).

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Santuen jarraibideari esker Jesusekin bat egiteak, geure santutasun-gogoia piztu dezake, fedean sendoturik bihotz-berritzearen fruituak emateko. Gorets dezagun elkarrekin Jainkoaren Seme gizon egina.

Hiru erataria egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (104-117. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrian ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Emaiozue bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jasoaukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

℟. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.

Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo oitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo oitza esango du zuzendariak:

Sakramentu honen bidez indarberritu gaituzunoi, Jauna,
emaguzu lehenengo kristauen antzera biritzea Elizan;
ogia zatitzean eta Apostoluen irakaspenetan zintzo iraunez,
bihotz bat eta arima bat izan gaitezen,
zure maitasunak sendoturik.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 118. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 119. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

Uztailaren 25ean SANTIAGO, APOSTOLUA Festaburua

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Santiagoren festaburua girotzeko sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

✠. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 100. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Jaungoiko gure Aitak eta Jesu Kristo gure Jaunak eman diezagutela beren grazia eta bakea.

Guztiak erantzungo dute:

✠. Bedeinkatua Jaungoikoa,
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Zuzendariak jarraituko du:

Senideok: Heriotzaraino Jesus Jaun berpiztuaren aitorle eta testigu leial izan zen Santiago Apostoluaren festaburua ospatzen du gaur Elizak. Eta berak Apostoluengandik jaso eta bizi duen fedearen aitormenean biltzen gara gu batzar honetan. Eskerrak emango dizkiogu Jainkoari fedearen dohain handiagatik; eta Santiago Apostolua lagun dugula, eskatuko diogu, guk ere sinesmenean sendo iraun dezagula. Jaun berpiztua bera gure batzarraren erdian, hementxe, geurekin dugula gogoratuz eta sinetsiz hasiko dugu gaurko ospakizun hau.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Senideok: Ospakizunaren hasieran gogora dezagun eta apalki aitortu, ez garela izan beti geure sinesmenaren lekuko garbi eta Jesus Jaunaren jarraitzaile zintzo. Eska dezagun, bada, Jaunaren errukia eta barkamena.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, zure jarraitzaile izatera deitu gaituzuna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, hilen artetik pizturik, gure bidea argitzen duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure itxaropen eta poz betea zaituguna: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (101. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Jainko ahalguztidun betierekoa,
Santiagoren odol-isurtzeaz sagaratu zenituen
Apostoluen lehenengo ebanjelizatze-lanak;
egizu, zure Elizak,
haren zaindaritzaz etengabe indarberriturik,
sendo iraun dezala haren testigantzaz
eta gure herriek leial jarrai diezaiotela Kristori
mendeen azkeneraino.

Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

✠. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A-B-C
urteetan

Gaurko Ebanjelioko kontakizuna hunkigarria gertatzen zaigu benetan, Zebedeotarren amak egiten duen eskabide ausartagatik alde batetik, baina baita bi semeek ematen duten erantzunagatik ere, Jaunaren kaliza edateko prestutasuna agertuz (*Eb.*). «Bai, gauza gara!» erantzun zuten Joanek eta Santiagok. Eta lehenengo irakurgaietan ikusiko dugun bezala, denbora gutxi igarota gertatu zitzaion Santiagori bere bizia eskaini beharra (*1. ir.*). Izan ere, San Paulok esango digun moduan, bere bizitzaren testigantzarekin eskertzen du kristauak Jaunaren dohaina, «Jainkoaren dohaina askorengana zabaltzean, esker ona ere ugal dadin» (*2. ir.*).

Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. IRAKURGAIK 4. liburuko 108-110. orrialdeetan daude egun honetakoak. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

Jarraian Sinesten dut esango da, guztiak zutik daudela (102-103. or.).

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Santiago Apostolua ehundaka erromesen lagun gertatzen da. Baita fede-bidean aurrera goazenontzat jarraibide eta eredu ere. Jasotako dohainengatik eskerrak emateko unea dugu orain, Jesus guretzat janari dela ospatuz.

Hiru erataria egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (104-117. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Emaiozue bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

℟. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.

Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo oitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo oitza esango du zuzendariak:

Eskerrak ematen dizkizugu, Jauna,
Santiago apostolu eta gure zaindariaren festaburua ospatzean
pozik hartu ditugun dohain santuengatik;
hura laguntzaile dugula,
zaindu gaitzazu beti zeure babespean.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 118. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 119. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

Uztailaren 31n
LOIOLAKO SAN IGNAZIO, PRESBITEROA
Donostiako eta Bilbaoko Elizbarrutietako Zaindaria

Festaburua

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Zaindari Santuaren festaburua girotzeko sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitarene, eta Semearene, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiek aitaren egingo dute eta erantzungo:

℟. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 100. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gorets dezagun Jauna
eta denok batera bedeinka dezagun haren izena.

Guztiek erantzungo dute:

℟. Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

Zuzendariak jarraituko du:

Loiolako San Ignazioren festaburuak bildu gaitu gaur, senideok, kristau-batzar honetan. Gure artean jaio eta gaurko egunez Erroman hil zen gizon honengan ikusten ditugun zerbitzu-jarrera eta apostolu-maitasun eta -zaletasunagatik Jainkoa goretsiko dugu. Izan ere, Jainkoaren maitasunak berotuta, senideen bihotzak onbideratzen saiatu zen Ignazio eta, Jainkoaren aintzarik handienaren bila, Jesusen Lagundia izeneko elkarte sortu zuen, kristau-herriaren onerako. Ospa dezagun, bada, fedez eta esker onez Zaindari dugun santu honen oroipen pozgarria, geure herrian bizi den Eliza eta herria bera bereziki gogoan ditugula.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Ospakizun honen hasieratik jar gaitezen, senideok, Jaunaren aurrean. Berak deitu gaitu gaur elkartean jai hau ospatzera, eta batzarraren erdian dugu bera geurekin. Hitz eta Ogi bizi-emaileak emango dizkigu, eguneroko bidean argi eta indar izan ditzagun. Eska diezaiozun lehenengo geure bekatuen barkamena.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, Zugan sinesten dutenen indar zaituguna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, zure jarraitzaileen itxaropen zarena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Zugan bizi direnei betiko bizia ematen diezuna: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (101. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Oi Jainko, Loiolako Ignazio santua eman zenion Elizari zure izenaren aintza gero eta gehiago zabaltzeko; egizu, hura lagun eta etsenplu dugula, lur honetan borroka eginik, irits dezagula garaipen-korua harekin batean zeruan.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

✠. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A-B-C urteetan Bizira daraman bidea edota heriotzara daramana aukeratzeko esaten digu Jainkoak. Minez bada ere errespetatzen du berak gaizki hartutako erabakiak eta leial jarraituko du beti egindako promesekin (1. ir). Bizira daraman bidea aukeratzea, leial izatea da, Jainkoa goretsiz eta Kristoren antzeko izanez bidez (2. ir). Izan ere «zertako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen eta hondatzen badu?» (Eb.).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO MEZAKO IRAKURGAIEN BEREZIA** liburuko 31-35. orrialdeetan daude egun honetakoak. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

Jarraian Sinesten dut esango da, guztiak zutik daudela (102-103. or.).

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da.

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Jauna gauza guztietan maitatzea eta denak Jaunagan maitatzea, Loiolako Ignazioren bizitzako ezaugarri izan zen: maitatzea eta zerbitzatzea. Horretarako deia eta indarra Eukaristiatik jaso zuen eta jasotzen dugu guk ere. Presta gaitzen jaunartzerako, Jauna goretsiz.

Hiru eratarata egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (104-117. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik **Gure Aita** otoitzari sarrera egingo dio:*

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Emaiozue bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

℟. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.

Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo oitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo oitza esango du zuzendariak:

Jauna, Loiolako Ignazio santuaren jai honetan
Zuri eskerrak emateko eskaini dizugun gorespen-opariak
eraman gaitzala betieran zure handitasun aintzatsua gorestera.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 118. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 119. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

Abuztuaren 6an JAUNAREN ANTZALDATZEA

Jaia

Jaia igandez gertatzen denean aurea hartuko dio igandeari eta ospatu egingo da.

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Jaunaren Antzaldatze-jaia girotuko duen sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

℟. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 100. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Jaungoiko gure Aitak eta Jesu Kristo gure Jaunak eman diezagutela beren grazia eta bakea.

Guztiak erantzungo dute:

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Zuzendariak jarraituko du:

Senideok: Igandea ospatzera bildu garen honetan, gaur Jesusen Antzaldatzea gogoratzen dugu. Antzinatik datorren jaia da. Nazaretoko Jesusek, Tabor mendian, Jainko Aitarekin duen aparteko elkartasuna erakusten die bere hiru apostolu hurbilekoenei. Jesus Jerusalemera eramango duen bideari hasiera ematera doa; gurutzera eramango du bide horrek. Gertaera ilun horiek gertatu aurretik, Jainkoak agertzera ematen digu, indartsu eta handikiro agertu ere, bide hori dela bizira eraman gaitzakeen bide bakarra.

Gaurko jai honen ospakizuna egokiera izan dakigula, Jesusen hitza eta erakutsiak entzuteko eta Jesusengan dugun fedea aitortu eta sendotzeko, beraren jarraitzaile sutsuago izan gaitezen.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Eska dezagun Jaunaren errukia eta barkamena, ospatzera goazen misterio santu hauek kristau-bizitzarako arnasberri gaitzaten.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, Jainko Aitaren Seme maitea zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gizaki oro argitzen duzun argia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gizaki guztiontzat egia, bidea eta bizia zarena: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (101. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitza.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitza egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Oi Jainko,
 zure Semearen Antzaldatze ospetsuan,
 Moises eta Elias arbasoak testigu zirela,
 sendotu egin zenituen fedeko misterioak
 eta egiazko zeure seme-alaba egingo gintuzula
 adierazi zenuen harrigarriro;
 egizu, entzun dezagula zure zerbitzariok
 zure Seme maitearen ahotsa,
 harekin batean zeruko zorionean parte izan dezagun.

Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

✠. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A-B-C urteetan Antzaldatzean, Jesusen jantzien zuri distiratsua aipatzen dute ebanjelariak (*Eb.*). Bada horretan lehen-irakurgaian kontatuko den Danielen ikuskariaren erreferentziarik: Jesus Jainkoa dela agerian geratzen da bere jantziak «elurra bezain zuri» zirelarik eta Gizonaren Semea da, berari eman zaiolarik ohorea eta erregetza (*1. ir.*). Gure fedearen oinarri moduan Antzaldatzearekin lehenengo kristau-elkarteek ematen zioten garrantzia kontatzen digu Gutunak (*2. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 4.** liburuko 117-120. orrialdeetan daude egun honetakoak. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

Igandea denez, Sinesten dut esango da, guztiak zutik daudela (102-103. or.).

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Eskerrak emango dizkiogu orain Jesus Jaunari, orain partekatuko dugun Eukaristiako Ogian betiko gure artean geratu nahi izan duelako.

Hiru erataria egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (104-117. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrian ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Emaiozue bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

℞. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.

Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo oitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo oitza esango du zuzendariak:

Zeure Semearen aintza agertu zenuen
Antzaldatze ospetsuaren egunean;
egizu, Jauna, hartu dugun zerutar janari honek
egin gaitzala zure Semearen irudiko.

Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℞. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 118. or.).*

Oharririk egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 119. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

Abuztuaren 15ean MARIA BIRJINA DOHATSUAREN ZERURATZEA Festaburua

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Ama Birjinaren festaburua girotzeko sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

✠. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 100. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gorets dezagun Jauna
eta denok batera bedeinka dezagun haren izena.

Guztiak erantzungo dute:

✠. Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

Zuzendariak jarraituko du:

«Poztu gaitzen denok Jaunagan, Maria Birjinaren jaieguna ospatzean; haren zeruratzeaz pozten dira aingeruak eta Jainkoaren Semea gorensten dute». Horrela dei egiten digu Elizak festaburu honetan, gaur Maria Birjina, Jaungoikoaren Ama, zerura jaso eta aintzaz betea izan dela gogoratzen baitugu. Eta Amaren zorion betea ospatzean, harengan handiak egin dituen Jainkoa gorensten dugu, egun batean guregan ere egintza handiak egingo dituen itxaropenean.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Senideok: Maria Birjina, Salbatzailearen Ama, bekaturik gabea eta aintzaz betea egin zuen Jainkoak badu beti gurekin erruki, eta, bekatari garenez, barkatzen ditu gure bekatuak, apalki eskatzen diogunean. Aitor ditzagun geure buruak bekatari Jainkoaren eta senideen aurrean.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, zeure Ama bekaturik gabea sortu zenuena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatua eta heriotza garaiturik, Aitaren aintza berean bizi zarena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zure Ama Maria gorputz eta arima zeruko aintzara jaso zenuena: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltzua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (101. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 zeruko ospera eraman zenuen, gorputz eta arima,
 Maria Birjina Sortzez Garbia, zeure Semearen Ama;
 egizu, goiko ondasunak bila ditzagula beti,
 zeruko ospean parte izan dezagun harekin.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

✠. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A-B-C urteetan Apokalipsia liburuko irakurgaiak, emakumearen seinalea aipatuz, Elizak gaitzaren indarrekin egin behar duen borroka iragartzen du lehenik eta behin. Mariarengan garaitu du Elizak bekatua eta heriotza (1. ir.). San Paulok Kristoren eta kristauon piztuera aipatuko du gero. Baina Jesusen eta gure artean Ama Maria dago, kristauen arteko lehenengo oinordekoa (2. ir.). Mariari entzungo diogu, gero, Ebanjelioan: «Handiak egin baitizkit ahalguztidunak» (Eb.).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 4.** liburuko 129-131. orrialdeetan daude egun honetakoak. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

Jarraian Sinesten dut esango da, guztiak zutik daudela (102-103. or.).

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Jesusekin bat egitea biziaren alde egiteko bultzada gertatzen da beti. Gaur Jaunartzera gerturatzeak eragin egiten gaitu Mariak dagoeneko iritsi duen betetasunerako prestatzera. Gorets dezagun bihotzez Jauna.

Hiru erataria egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (104-117. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik **Gure Aita** otoitzari sarrera egingo dio:*

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrian ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Emaiozue bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

℟. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.

Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagrariora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Sakramentu salbagarria hartu dugu, Jauna;
egizu, Maria Birjina dohatsua
zeruetara jasoaren otoitzari esker,
piztueraren aintzara irits gaitezela.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 118. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 119. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

Irailaren 9an
ARANTZAZUKO MARIA BIRJINA DOHATSUA
Gipuzkoako Zaindaria

Jaia

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Ama Birjinaren jaia girotzeko sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

✠. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 100. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gorets dezagun Jauna
eta denok batera bedeinka dezagun haren izena.

Guztiak erantzungo dute:

✠. Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

Zuzendariak jarraituko du:

1469an Baltzategiko Errodrigo artzainak Maria Birjinaren irudia aurkitu eta bertan estalpetxoak egin eta gero, 1918an Gipuzkoako Zaindari izendatu zutenetik gaurdaino ia sei gizaldiz aurkitzen da Arantzazuko gainean dagoen Amarekiko debozioa. Amarekiko maitasun horrek elkartu gaitu gaur gu ere, igandea ospatuz kristauon batzarra egitera. Esker dezagun Mariaren bidez eskaintzen zaigun Jainko errukitsuaren babes. Ospa dezagun pozik gaurko jaia.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Senideok: Ospakizunaren hasieran jar gaitezen Jaunari begira eta zabal ireki diezaiogun geure barrua, berriro ere gutaz erruki dadila eskatuz.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, Mariaren txikitasuna zoriontasun handiz aberastu zenuena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Maria zure ama eta gure ama egin duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Ama Mariaren bidez, esperantza eta alaitasuna pitzen dizkiguzuna: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (101. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Jainko Aita errukitsua,
 maitasun arduratsuz hurbildu zatzaizkigu
 Maria beti Birjina [Arantzazun] azaltzean;
 egizu, gure Amaren otoitzari esker,
 sendo dadila egunetik egunera gure fedea
 eta egiazko bakean eta elkertasunean bizi gaitezela beti.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

✠. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A-B-C urteetan

Mariaren fedea gorai patzen dute gaurko irakurgaiak: «Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako» (*Eb.*). Horrexek bilakatzen du Maria herriaren edertasun eta poz, Juditengan Mariaren irudia sumarazten digun lehen-irakurgaiak dioen moduan (*1. ir.*). Jainkoak bere Semea, «emakumeagandik jaioa», bidali digula aitortzean, egoki adierazten du San Paulok Mariaren zeregina salbamen-misterioaren garapenean (*2. ir.*), sinesmenak egin zuen Jainkoaren ama, baita gure ama ere.

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO MEZAKO IRAKURGAIEIEN BEREZIA** liburuko 40-43. orrialdeetan daude egun honetakoak. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

Igandea denez, Sinesten dut esango da, guztiak zutik daudela (102-103. or.).

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Mariaren bisitaldiarekin, Elisabeten sabelean haurrak salto egin zuen, Jainkoaren gertutasunak eragindako pozez. Guk ere halaxe gerturatu nahi dugu mahai santura, barne-pozez beterik. Aitor dezagun Jauna aldarean izatearen poz handia eta gorets dezagun elkarrekin Mariaren Semea.

Hiru eratarata egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (104-117. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Emaiozue bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jasoaukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

℟. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.

Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo oitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo oitza esango du zuzendariak:

Eukaristia honek indarberriturik,
[Arantzazuko] Maria Birjinaren oitizari esker,
eskatzen dizugu, oi Jainko,
nabari dezagula nonahi eta beti
zure maitasuna eta babes.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 118. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 119. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

Irailaren 14an GURUTZE SANTUAREN GORAPENA

Jaia

Jaia igandez gertatzen denean aurea hartuko dio igandeari eta ospatu egingo da.

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Gurutzearen misterioa gogoratzen duen sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

✠. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 100. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Jaungoiko gure Aitak eta Jesu Kristo gure Jaunak eman diezagutela beren grazia eta bakea.

Guztiak erantzungo dute:

✠. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Zuzendariak jarraituko du:

Senideok: Gurutze Santuaren eguna ospatzen dugu gaur, Jesu Kristoren Gurutze Santuaren Gorapen-jaia. Gure kristau-fedearen ezaugarri nagusia den Gurutzera begira jartzen gaitu egun honek. Hor ezarri baitu Jainkoak gizon eta emakume guztion salbamena; hor, betiko bizira daraman piztueraren lehen oinarria.

Elkarteko ospakizun honetan bildurik, eskerrak emango dizkiogu, gu bizi gaitezen bere bizia gurutzean eman duen Jaunari, eta bizi horren fruituak oparo jaso ditzagula eskatuko diogu.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Senideok: Gurutzean salbamena irabazi digun Jesu Kristo Jaunarengan uste osoa jarririk, ospakizunaren hasieran eska diezaiogun Jaunari bere errukia eta bekatu guztien barkamena.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, gurutzean josita, salbamen-ezaugarri zaituguna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gurutzean josita, neurrigabeko maitasuna adierazten diguzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gurutzean josita, betiko bizia eskaintzen diguzuna: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (101. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Oi Jainko, zure Seme bakarrak
gurutzeko heriotza onartzea nahi izan zenuen,
gizon-emakume guztiak salbatzeko;
egizu, arren, haren misterioa lur honetan ezagutu dugunok
irits dezagula zeruan haren salbamen betea.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

✠. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A-B-C urteetan Gaurko jaiaren izenak, Gurutze Santuaren Gorapenak Jesusen profezia hura dakarkigu gogora: «hala izan behar du altxatua Gizonaren Semeak»; horrela, Moisesek brontzeko sugea altxatzeko erabili zuen makilarekin alderatzen du Jesusek bere Gurutzea (*Eb.*). Lehenengo irakurgaian kontatuko zaigu brontzeko sugearen salbamen-ezaugarriaren izaera hori (*1. ir.*), San Paulok berriz Jainkoaren Semea zenbat beheratu zen gogoratzen digu, gurutzeko heriotzaraino, hain zuzen ere: «Horregatik, denen gainetik goratu zuen Jainkoak» (*2. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIK 4.** liburuko 145-148. orrialdeetan daude egun honetakoak. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

Igandea denez, Sinesten dut esango da, guztiak zutik daudela (102-103. or.).

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Eskerrak emango dizkiogu orain Jesus Jaunari, partekatuko dugun Eukaristiako Ogian betiko gure artean geratu nahi izan duelako.

Hiru eratara egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (104-117. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Emaiozue bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jasoaukalka, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

℟. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.

Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Jesu Kristo Jauna,
zure eskutik hartu dugun janari santuak indarberriturik,
Zuri otoitz egiten dizugu:
gurutzeko zuhaitzaren bidez
salbatu eta biziberritu gaituzunok
eraman gaitzazula piztueraren aintzara.

Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 118. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 119. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

Azaroaren 1ean SANTU GUZTIAK

Festaburua

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Santu Guztien festaburua girotzeko sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitarenean, eta Semearenean, eta Espiritu Santuarenean izenean.

Guztiek aitarenean egingo dute eta erantzungo:

℟. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 100. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gorets dezagun Jauna
eta denok batera bedeinka dezagun haren izena.

Guztiek erantzungo dute:

℟. Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

Zuzendariak jarraituko du:

Santu guztien festaburuak biltzen gaitu gaur, senideok. Mundu honetako bideetan ibili ondoren Jainkoak betiko zorionean bizitzera eramanean dituen gure senide guztien oroipen pozgarria egiten dugu. Beraz, orain hasten dugun ospakizun honek biziaren sinesmen eta itxaropenaren aitormen tinkoa izan nahi du; eta zeruan zoriotsu bizi diren guztien gorespen- eta esker-kantuan bat eginik, oraindik bidean goazenok Jainkoari eskaintzen diogun gurtza.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Senideok: Ospakizunaren hasieran isilune labur bat egingez, aitor dezagun Jaunaren aurrean geure ahulezia eta haren laguntzaren eta errukiaren premia.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, Zu zara zeure santuen indarra: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Zuk irabazi diguzu betiko biziaren zoriona: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Zu zara berpiztuko direnen artean lehenengoa: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (101. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Jainko ahalguztidun betierekoa,
Santu Guztien merezimenduak
egun berean ospatzea ematen diguzu;
horrenbeste laguntzaile dugunez gero,
emaguzu oparo,
eskatzen dizugun errukia eta barkamena.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

✠. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A-B-C urteetan

Apokalipsia liburuko ikuskaria eta Zoriontasunen Ebanjelioa dira Santu Guztien egun honetako liturgiaren oinarria. Apokalipsiak aipatzen duen kontaezin ahaleko gizatalde handia egungo errealitate ikusezina da eta gure norabidea zehazten duen etorkizuna ere bai (*1. ir.*). Zoriontasunen Ebanjelioak ibili beharreko bidea zehazten digu: «Zorionekoak bihotz-garbi direnak, berek ikusiko baitute Jainkoa» (*Eb.*). San Joanek lotzen ditu bi irakurgai horiek. Gure oraina aipatzen du: «Jainkoaren seme-alaba gara» eta gure etorkizuna aurreikusten du: «den bezalakoa ikusiko dugu».

Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. IRAKURGAIK 4. liburuko 197-199. orrialdeetan daude egun honetakoak. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

Jarraian Sinesten dut esango da, guztiak zutik daudela (102-103. or.).

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Jainkoaren erreinua bere betera iristean, elkarrekin ospatuko dugu zorionsuen jaia. Bitartean, Eukaristia dugu biderako laguntza.

Hiru erataria egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (104-117. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Emaiozue bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jasoauk, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

℟. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.

Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo oitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo oitza esango du zuzendariak:

Oi Jainko,
Santu Guztien jaiegun honetan,
Zu aitortzen zaitugu harrigarri, Zu bakarrik santu;
eta zure grazia eskatzen dizugu,
zeure maitasun beteaz santutasun osora eraman gaitzazun
eta, lurrean erromes goazenon mahai santu honetatik,
zeruan prestatua duzun mahai santura igaro gaitezen.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 118. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 119. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

Azaroaren 2an

HILDAKO FEDEDUN GUZTIEN OROITZAPENA

Jaia igandez gertatzen denean aurea hartuko dio igandeari eta ospatu egingo da.

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Hileta elizkizunetako sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiek aitaren egingo dute eta erantzungo:

℟. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 100. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Jaungoiko gure Aitak eta Jesu Kristo gure Jaunak eman diezagutela beren grazia eta bakea.

Guztiek erantzungo dute:

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Zuzendariak jarraituko du:

Ongi etorri, senideok: Hil eta piztu zen Jesu Kristo gure Jaunaren sinesmen berean bildu gara gaur kristau-elkartean. Eta sentipen berak eraginda, hildako gure senideak gogoratzen ditugu eta beraien alde otoitz egiten dugu, Jainkoak bere zorionean betiko har ditzala eskatuz. Bakoitzak, noski, geure familiarteko eta hurbileko hildakoak izango ditugu gogoan; baina egun honetan, hildako guztiak ere gogoratuko ditugu. Bil gaitezen, bada, guztiekiko senidetasun beroan, gugatik bere bizia eman zuen Jesu Kristoren inguruan.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Senideok: Aitor dezagun fedez Jaunaren eskuetan dugula geure bizia. Aitor dezagun baita ere apalki, badugula geuregan biziaren etsaia den bekatua; eta eska diezaiogun Jaunari errukia eta barkamena.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, gurutzean odola isuriz gure bekatuak kentzen dituzuna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, hilobitik piztuz heriotzatik ateratzen gaituzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zeruetara igoz bizia salbatzen diguzuna: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (101. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Fededunen zoriona eta zintzoen bizia zaren Jainkoa,
 Zuk salbatu gaituzu zeure Semearen heriotzaz eta piztueraz;
 erruki zaitetz hildako gure senideez
 eta egizu, piztueraren misterioa sinetsi dutenez gero,
 goza dezatela betiko zorionaren poza.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

✠. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A-B-C urteetan Gaurko irakurgaiak itxaropen-mezua dira gure ahaide eta lagunaren heriotza oroitzen dugunontzat eta prestatu egiten gaituzte egun batean guk geuk Jainkoarekin topo egiteko. Heriotza ez da azkena; Kristorekin hiltzen bagara, harekin piztuko gara. Entzun dezagun arretaz gaurko Hitzaren mezua.

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIK 4.** liburuko 199-206. orrialdeetan daude egun honetakoak. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

*Igandea denez, **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (102-103. or.).*

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoiiza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Hilen artetik piztu zen Kristo Salbatzaileari eskerrak emango dizkiogu orain eta eskatuko diogu eman diezaiela hildako fededun guztiei itxaro izan zuten betiko bizia.

Hiru eratarata egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitza batekin (104-117. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik **Gure Aita** otoiartzari sarrera egingo dio:*

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Emaiozue bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohienez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

✠. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.

Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Gugatik hil eta aintzaz piztu zen
zure Semearen sakramentua harturik,
apalki eskatzen dizugu, Jauna, hildako gure senideen alde:
Kristoren pazko-misterioan garbiturik,
irits dezatela piztuera-egunean zorion betea.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

✠. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 118. or.).*

Oharririk egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 119. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

Azaroaren 9an LETRANGO BASILIKA SAGARATZEA

Jaia

Jaia igandez gertatzen denean aurea hartuko dio igandeari eta ospatu egingo da.

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Hileta elizkizunetako sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

✠. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 100. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Jaungoiko gure Aitak eta Jesu Kristo gure Jaunak eman diezagutela beren grazia eta bakea.

Guztiak erantzungo dute:

✠. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Zuzendariak jarraituko du:

Senideok: Gaurko igande honetan jai berezi bat ospatzen dugu kristauok. Erroman dagoen antzinako eliza baten sagaratze-eguna. Letrango basilikarena, hain zuzen. Hauxe da, izan ere, Erromako Aita Santuaren gotzain-eliza edo katedrala. «Eliza guztien ama» deitu ohi zaio. Urtero ospakizun honetan bat egiten dugu munduko kristau katoliko guztiok. Horrela gogoratzen dugu fede berak elkartzen gaituela denok, eta Pedro apostoluarengandik datorren Erromako Elizaren inguruan adierazten dugu batasun horren ezaugarria.

Gainera, harrizko eliza hori gogoratzeak, gure herrian [gure auzoan] fedea ospatzera biltzeko kristauok dauzkagun elizak maitatzera eta gogoz zaintzera bultzatuko gaitu. Kristau guztiakin bat eginik, geure sinesmena aitortuko dugu, bada, gogoz, eta gure Jaunari eskerrak emango pozik.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Senideok: Elkartean biltzen garenean, beti geure artean dugu Jesus berpiztua, bera baita gu batzarrera deitu gaituena. Barneratu dezagun, bada, egia pozgarri hau eta, isilune labur batean, aurkez diezaiogun bakoitzak geure barrua.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, gure bizia zaitugna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gure itxaropena argitzen duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure batasuna sendotzen duzuna: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (101. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitza.

Eta guztiak, zuzendariarekin batera, otoitza egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Oi Jainko, harri biziz eta bereziz eraikitzen duzu zeure aintzaren betiko etxea; ugaritu zeure Elizari emandako dohainak, zeruko Jerusalem gero eta handiagoa egiten joan dadin beti.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A-B-C urteetan

Kristau-elizak ez dira tenpluak, Jerusalemgoa izan zen moduan. Hark ez zuen Kristoren etorreraren ondoren jarraitu, izan ere Kristo baita Jainkoaren Tenplu bakarra, Ebanjelioak dioen bezala (*Eb.*). San Paulok gogoratzen digu Eliza bizia, guk osatzen duguna, ez dela berez, baizik eta Kristoren Gorputz izateari esker, Jainkoaren tenplu eta Espiritu Santuaren bizitoki (*2. ir.*). Kristoren gorputz hori haziz doa gizaldietan barna, egun batean zeruko Eliza izateraino. Zeruko eliza horren aintza aurkezten digu lehenengo irakurgaiak (*1. ir.*).

Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. IRAKURGAIK 4. liburuko 208-210. orrialdeetan daude egun honetakoak. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

Igandea denez, Sinesten dut esango da, guztiak zutik daudela (102-103. or.).

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Zerutik jaitsitako Ogia da Jesus, Elizaren harri bizi egiten gaituena. Ogi Santu hori hartu baino lehen, gora dezagun pozez Jauna.

Hiru erataria egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (104-117. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Emaiozue bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

℟. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.

Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo oitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo oitza esango du zuzendariak:

Lurreko Eliza

zeruko Jerusalemen ezaugarri egin duzun Jainkoa,
sakramentu honetan parte hartzearen bidez,
egin gaitzazu orain zeure graziaren bizileku
eta eraman gaitzazu gero zeure aintzaren etxera.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 118. or.).*

Oharririk egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 119. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

Abenduaren 3an XABIERKO SAN FRANTZISKO Nafarroako Zaindaria

Festaburua

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Zaindari Santuaren festaburua girotzeko sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiek aitaren egingo dute eta erantzungo:

✠. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 100. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gorets dezagun Jauna
eta denok batera bedeinka dezagun haren izena.

Guztiek erantzungo dute:

✠. Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

Zuzendariak jarraituko du:

Senideok: Gure Zaindari den Xabierko San Frantziskoren oroipen pozgarrian bildu gara gaur; gizon honengan agertzen den Jainkoaren gizaki guztiekiko maitasun handia kristau-elkartean ospatu eta eskertuko dugu. Ongi etorri! San Frantzisko bere maitasun-garrez bete zuen Jainkoak eta gizon-emakume guztien salbamenaren zaletasunez sutu. Horrela, lan eta neke handiak bere gain hartuz, Jesusen Ebanjelioa atzerriko lurralde askotan zabaldu zuen, eta Elizako misiolari guztien eredu eta zaindari ere jarria izan da. Bil gaitezen, bada, fedez eta esker onez ospakizun honetan, Jainkoa goretsiz eta santu honen laguntza eskatuz.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Ospakizun honen hasieratik jar gaitezen, senideok, Jaunaren aurrean. Berak deitu gaitu gaur elkartean jai hau ospatzera, eta batzarraren erdian dugu bera geurekin. Biziaren Hitza eta Ogia emango dizkigu, eguneroko bidean argi eta indar izan ditzagun. Eska diezaiozun lehenengo geure bekatuen barkamena.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, Zugan sinesten dutenen indar zaituguna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, zure jarraitzaileen itxaropen zarena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Zugan bizi direnei betiko bizia ematen diezuna: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (101. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitza.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitza egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Xabierko Frantzisko santuaren predikuari esker
herrialde asko Zeuregana erakarri zenuen Jainkoa;
egizu, sutu daitezela fededunen bihotzak
sinesmena zabaltzeko hark izan zuen zaletasun beraz
eta poztu dadila Eliza
seme-alaba ugari izateaz leku guztietan.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

✠. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A-B-C urteetan

Berri Ona zabaltzea ezinbesteko eginkizuna da Paulorentzat. Horretarako egin da denen esklabo, ahalik eta jende gehien Kristorentzat irabazteko. Kiroldedian lasterkaria saiatzen den bezala, saiatzen da Paulo besteei irakasten diena betetzen, zimeltzen ez den koroa irabazteko (2. ir). Hori, Jaunak antzinatik gizaldi guztiak bereganatzeko duen asmoa betetzeko egingo du: «Nik bilduko ditut, Jerusalem, zugandik urruti eta jairik gabe triste zeudenak» (1. ir). Kristau guztiok gaude deituak egitasmo honetan parte hartzera, Ebanjelioa lur-muga guztietara eramanez: «Hots egin Berri Ona izaki guztiei» (Eb.).

Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. IRUÑEKO ETA TUTERAKO ELIZBARRUTIETAKO MEZAKO IRAKURGAIEN BEREZIA liburuko 56-58. orrialdeetan daude egun honetakoak. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak.

Fede-aitormena

Jarraian Sinesten dut esango da, guztiak zutik daudela (102-103. or.).

Jainkoaren herriaren otoitza

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (ik. **IRUÑEKO ETA TUTERAKO ELIZBARRUTIETAKO MEZEN BEREZIA** liburuko 68. or.).*

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Xabierko San Frantzisko urrutira iritsi zen gizon-emakume guztiak salbatzeko egarriz eta Ebanjelioaren testigu lehiatsu izan zen. Eukaristia izango zuen, noski, horretarako indarra. Guk ere testigantzarako indartzen gaituen Ogi Santua hartu baino lehen gurtu eta goretz dezagun elkarrekin gure Jauna.

Hiru eratarata egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (104-117. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik **Gure Aita** otoitzari sarrera egingo dio:*

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Emaiozue bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jasoaukalka, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

℟. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo oitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo oitza esango du zuzendariak:

Oi Jainko, sakramentu honek piztu dezala gudan
Xabierko Frantzisko santuak
gizakiak salbatzeko izan zuen maitasun-garra;
egizu, geure kristau-bokazioari zintzoago jarraituz,
langile onei agindutako saria irits dezagula
harekin batean.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 118. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 119. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

Abenduaren 8an

MARIA BIRJINA DOHATSUAREN SORTZE GARBIA

Festaburua

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Ama Birjinaren festaburua girotzeko sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiek aitaren egingo dute eta erantzungo:

℟. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 100. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gorets dezagun Jauna eta denok batera bedeinka dezagun haren izena.

Guztiek erantzungo dute:

℟. Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

Zuzendariak jarraituko du:

Ongi etorri, Maria Birjina dohatsuaren Sortze Garbia ospatzera bildu zaretenok. Fededunen elkartean eta Abendualdiko giroan, Jesusen Ama eta gure Ama Mariarengan gauza hain handiak egin dituen Jaungoikoa goretsi nahi dugu gaur. Pozik eta esker onez goretsi ere, munduaren Salbatzailea ekarriko zuen emakumea sortzetik inolako bekaturik gabe, erabat garbi eta graziaz betea egin duelako.

[Bilbao, Donostia eta Gasteizko Elizbarrutietan:] Abenduaren 8a, bestalde, gure elizbarrutiko Seminarioaren eguna da. Izan ditzagun gogoan gure otoitzean etorkizunean gure parroketan apaiz-ardura beren gain hartzeko prestatzen ari diren gazteak. Aldi berean, gaurko gazteen artean apaizetarako bokazio berriak sor daitezela eskatuko diogu gure Jainkoari.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Senideok: Ospakizunaren hasieran gogora dezagun, Jainkoaren erruki eta salbamenaren beharrea aurkitzen garela. Eta Maria Birjina bekatutik garbi egin zuen Jainkoari, eska diezaiozun barka ditzala gure bekatuak.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

- Jesus Jauna, zeure herria salbatzeko Maria Birjinagan gizon egin zina: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, gizadiaren itxaropen guztiak betetzera etorria: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, zeure Ama bekatutik garbi eta graziaz betea egin zenuena: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (101. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiak, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Oi Jainko,
 egoitza egokia prestatu zenion zeure Semeari
 Maria Birjinaren Sortze Garbiaz
 eta, honen Semearen heriotza aurreikusirik,
 garbi gorde zenuen bekatu guztitik Ama;
 egizu, Maria Birjinaren otoitzari esker,
 gu ere Zugana garbi irits gaitzela.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A-B-C urteetan Gaurko Ebanjelioan, aingeruak Mariari egindako agurra entzungo dugu: «Poztu zaitez, graziaz bete hori!» (*Eb.*). Bete-bete hartu zuen Mariak, beste edozein izakik baino gehiago, Jainkoak Kristogan eman digun bedeinkapena «santu eta errugabe izan gaitzen beraren aurrean, maitasunez» (2. *ir.*). Hasiara liburutik hartutako lehenengo irakurgaiak, berriz, emakumearen oinordekoak, hau da, Kristok Satanen gain izango duen garaipena aurreratzen digu. Testu honek «geroko erbelazioaren argitan ulerturik» Evaren eta Mariaren arteko paralelismoa ekartzen digu gogora.

Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. IRAKURGAIAK 4. liburuko 221-224. orrialdeetan daude egun honetakoak. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

Jarraian Sinesten dut esango da, guztiak zutik daudela (102-103. or.).

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Espiritu Santuaren bidez Mariaren erraietan egiazko gizon egin zen bezala, Espiritu beraren bidez presente egiten da Jesus, egiaz, Eukaristiako sakramentuan. Ogi Santu hori hartu aurretik egin dezagun otoitz: gurtu eta gorets dezagun elkarrekin Mariaren Semea.

Hiru eratarata egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (104-117. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Bakearen Erregea etorriko zaigun itxaropenez eta pozez, emaiozue bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jasoauk, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

℟. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.

Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagrariora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo oitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo oitza esango du zuzendariak:

Jainko gure Jauna, Maria Birjinaren Sortzea
jatorrizko bekatutik garbi gorde zenuen miragarriro;
hartu dugun sakramentu honek senda ditzala guban
bekatu horren zauriak.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria (*Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 118. or.*).

Oharririk egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra (*Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 119. or.*).

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.


℟. Eskerrak Jainkoari.

ERANSKINAK

I. HASIERAKO AGURRA KANTUZ EGITEKO DOINUAK

*Zuzendariak***1**

∇. Jaun-goi-ko gu-re Ai-tak e-ta Je-su Kris-to gu-re Jau-nak



e-man di-e-za-gu-te-la be-ren gra-zi - a e-ta ba-ke-a.

Denek


℞. Be - dein - ka - tu - a Jaun - goi - ko -



a, Je-su Kris-to gu-re Jau-na-ren Ai - ta.

*Zuzendariak***2**

∇. Gorets deza-gun Jau - na, eta denok batean bedein-ka



de - za-gun ha-ren i - ze - na.

Denek

℞. Be-dein-ka-tu-a Zu, Jau-na, o-rain e-ta be-ti.

II. DAMU OTOITZERAKO BESTE ERA BATZUK

1.

Isilune laburra egingo da. Eta, denek batera, beren bekatuak aitortuko dituzte:

Aitortzen diot Jainko guztiz ahaltsuari, eta zuei ere bai, ene senideoi, bekatu egin dudala gogapen, hitz eta egitez, eta eginbeharrak ez eginez; *Eta, bularra joz, esango dute:* bai, bekatari naiz. Horregatik eskatzen diet Andre Maria beti Birjinari, aingeru eta santu guztiei eta zuei ere bai, ene senideoi, otoitz egin diezaiozuela nire alde Jainko gure Jaunari

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. **℟.** Amen.

Eta jarraituko du:

✠. Erruki, Jauna. **℟.** Erruki, Jauna.

✠. Kristo, erruki. **℟.** Kristo, erruki.

✠. Erruki, Jauna. **℟.** Erruki, Jauna.

2.

Isilune laburra egingo da. Eta, elkarrizketa moduan esango da:

✠. Erruki, Jauna. **℟.** Bekatu egin dugu eta.

✠. Agertu guri, Jauna, zeure bihotz ona. **℟.** Eta salba gaitzazu.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. **℟.** Amen.

Eta jarraituko du:

✠. Erruki, Jauna. **℟.** Erruki, Jauna.

✠. Kristo, erruki. **℟.** Kristo, erruki.

✠. Erruki, Jauna. **℟.** Erruki, Jauna.

III. FEDE AITORMENA

1.

Sinesten dut Jaungoiko bat bakarra,
Aita guztiz ahaltzua, zero-lurren Egilea,
ageri diren eta ez diren guztiena.

Sinesten dut Jaun bat bakarra, Jesu Kristo,
Jainkoaren Seme bakarra,
mende guztiak baino lehen Aitagandik sortua.
Jainkoagandik Jainko, argitik argi,
egiazko Jainkoagandik egiazko Jainko;
sortua, ez egina, Aitaren izate berekoa.
Haren bidez dira eginak gauza guztiak.
Gu gizakiongatik eta gu salbatzeko jaitsi zen zerutik.

Ondorengo hitzetan, gizon egin zen arte, denak makurtu egingo dira.

Eta, Espiritu Santuaren egitez
Maria Birjinagandik gorputz harturik, gizon egin zen.
Pontzio Pilatoren menpean gugatik gurutzeratua izan zen,
oinazetan hila eta hobiratua.
Hirugarren egunean piztu zen, Liburu Santuak esan bezala,
zerura igo eta Aitaren eskuinaldean jarririk dago.
Aintzaz etorriko da berriz biziak eta hilak epaitzera,
eta haren erregetzak ez du azkenik izango.

Sinesten dut Espiritu Santua, Jauna eta bizi-emailea,
Aitagandik eta Semeagandik dena;
Aitarekin eta Semearekin batean agur eta gorespen berbera
hartzen duena eta profeten ahoz hitz egin zuena.

Sinesten dut Eliza: bat, santua, katolikoa eta Apostoluena.
Aitortzen dut Bataio bakarra, bekatuak barkatzeko.
Itxaroten dut hildakoen piztuera
eta datorren munduko bizia. Amen.

2.

Sinesten dut Jainko Aita ahalguztiduna,
zeru-lurren Egilea.

Sinesten dut haren Seme bakarra, Jesu Kristo gure Jauna,

Ondorengo hitzetan, Birjinagandik jaio zena arte, denak makurtu egingo dira.

Espiritu Santuaren egitez sortu
eta Maria Birjinagandik jaio zena;
Pontzio Pilatoren menpean nekaldua;
gurutzean iltzatua, hila eta hobiratua izan zena;
infernuetara jaitsi eta hirugarren egunean
hilen artetik piztu zena;
zeruetara igo eta Jainko Aita ahalguztidunaren
eskuinaldean jarririk dagoena;
handik biziak eta hilak epaitzera etorriko dena.

Sinesten dut Espiritu Santua,
Eliza santu katolikoa, santuen elkartasuna,
bekatuen barkamena,
haragiaren piztuera eta betiko bizia. Amen.

IV. LETANIA ERAKO ESKER OTOITZAK

1. Aintza Zuri, Jauna

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Eskerrak ematen dizkizugu, Jaungoiko gure Aita,
Biziaren ogia den zure Seme Jesu Kristorengatik.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:

Zuzendariak *Denek*

∇. Ain - tza Zu - ri, Jau - na. ℞ Ain - tza Zu-
 ri, Jau - na e - ta es - ke - rrak Zu - ri!

Zuk beti prest dituzu guztiontzat
 behar ditugun janari-edariak,
 eta orain gertu daukazu guretzat
 betiko bizia ematen duen ogia,
 Jesu Kristo zure Semearen gorputz santua.

∇. Aintza Zuri, Jauna.

℞. **Aintza Zuri, Jauna eta eskerrak Zuri!**

Elkarrekin jango dugun Eukaristiako ogia
 gari-ale askotatik egina izan den bezala,
 horrela gu ere, zure Eliza osotzen dugunok,
 sinesmen eta maitasun berak bil gaitzala
 lurraren alde batetik besteraino
 zure Erreinuko batasunean.

∇. Aintza Zuri, Jauna.

✠. **Aintza Zuri, Jauna eta eskerrak Zuri!**

Eskerrak, bai, Jaungoiko gure Aita,
baden, badatorren eta etorriko den
zure Seme, Jesu Kristo, gure Jaunarengatik.

∇. Aintza Zuri, Jauna.

✠. **Aintza Zuri, Jauna eta eskerrak Zuri!**

2. Bedeinkatua Zu, Jauna

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Zuk egin duzun guztia
gure eskuetan jarri duzu, Jauna,
itxaro dugun lur berria bideratzen
Zurekin batera lan egin dezagun.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du -edota esango-, eta denek erantzungo dute:

Zuzendariak



∇. Ho-rre-ga - tik, be-dein-ka - tzen zai-tu - gu:

Denek



✠. Be-dein-ka-tu - a Zu, Jau - na, gu-re Jain-ko - a!

Zure Seme Jesu Kristo eredu jartzen diguzu
eta haren antzera hobeak izaten saiatzera dei egiten.
Beraren bidez eta berarekin gizaki berri eginik,
betiko biziaren betera eraman nahi gaituzu.

∞. Horregatik, bedeinkatzen zaitugu:

⌘. **Bedeinkatua Zu, Jauna, gure Jainkoa!**

Zure Elizaren batasunean parte izatera
deitu gaituzu,
Zuk agindutako gizadi berria
eraikitzen joan gaitezen.

∞. Horregatik, bedeinkatzen zaitugu:


⌘. **Bedeinkatua Zu, Jauna, gure Jainkoa!**

3. Eskerrak Zuri, Jainko

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Eskerrak Zuri, Jainko gure Aita:
zure Seme Jesu Kristo,
Espiritu Santuaren egitez,
gure giza haragiz jantzita bidali diguzu.
Eta hura ikusirik,
harengan Zu ikusi ahal izatea eman diguzu.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du -edota esango-, eta denek erantzungo dute:



∞. Ho - rre - ga - tik, bihotzez e - sa - ten di - zu - gu:



⌘. Es-ke - rrak Zu - ri, Jain - ko, gu - re Ai - ta!

Jesu Kristo, Gizaki berria, Espirituaren indarrez,
on egiten, gaitzak hartutakoak sendatzen
eta behartsuei Berri Ona hots egiten igaro zen.
Eta guk, haren antzeko izanik,
haren urratsei jarraitzea nahi duzu.

∇. Horregatik, bihotzez esaten dizugu:

✠. **Eskerrak Zuri, Jainko, gure Aita!**

Zure Semea guregatik heriotzara emanik.
Espirituaren indarrez hilen artetik berpiztu
eta diren guztien Jaun ezarri duzu.
Eta guri Berarekin betiko bizi ahal izatea eman diguzu.

∇. Horregatik, bihotzez esaten dizugu:

✠. **Eskerrak Zuri, Jainko, gure Aita!**

4. Aintza Aitari

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Goresten eta bedeinkatzen zaitugu, Jainko gure Aita,
zure Seme Jesu Kristoren bitartez, Espiritu Santuaren batasunean.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:



∇. Es-ke-rrak Zu-ri, Ai-ta o-na. ✠. Ain-tza Ai-ta - ri, e -



ta Se-me-a - ri, e - ta Es-pi - ri - tu San-tu - a - ri!

Zugandik hartu ditugun gauza on guztiengatik
eta gizakiari eman diozun Espirituaren dohainarengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Lurra emankor egiten duten eguzki eta urarengatik,
eta gizakiaren lanak sortu dituen
tresna eta aurrerapen guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Gure familietako maitasunarengatik
eta giza bizitzako lagunarte-
eta solidaritza-ezaugarri guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Zure Seme Jesu Kristoren irudiaren arabera,
gu zure antzeko nahi gaituzulako:
santu, on-on eta errukitsu,
eta hori lortzeko ematen dizkiguzun grazia guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Zure Seme Jesu Kristo gurutziltzatu eta berpiztuarengan,
gure atsekabe eta pozaldiek, gure ezbehar eta garaipenek,
argi berria hartzen dute.
Salbamen-misterio horren ondorio pozgarri guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Zure Seme Jesu Kristoren erospenari esker,
 izadi osoa erdiminetan dago
 zeru berriak eta lur berria itxaroten.
 Zure dohain dugun betiko biziaren itxaropenak
 guregan eta munduan eragiten dituen
 giza aurrerapide eta maitasun-egintza guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

5. Gora Zu: I

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Jesus Jauna,
 Zu zara ilunpeak desegiten dituen Argia.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:

Zuzendariak *Denek*



✠. Ho - rre - ga - tik e - sa - ten di - zu - gu: ✠. Go - ra

Zu, go-ra Zu, be - dein-ka-tu-a Zu, es-ke-rrak Zu - ri!

Zu zara gezur-bidetik aldentzen gaituen Egia.

✠. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure pausoak zuzentzen dituen Bidea.

∇. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure gosea asetzen duen Ogia.

∇. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure gaitzak sendatzen dituen Osasuna.

∇. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure heriotza garaitzen duen Bizia.

∇. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure betiko bizia ziurtatzen duen Piztuera.

∇. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

6. Gora Zu: II

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Zuri, Jesus Jauna, zuzentzen dizugu gure otoitza.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du -edota esango-, eta denek erantzungo dute:



∇. En - tzun, Jau - na, gu - re go - ra - pe - na.

Denek

Go - ra Zu, be-dein-ka-tu-a - Zu, es-ke-rrak Zu - ri.

Zu zara Aitaren Seme bakarra.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zuk, gizakia salbatzearren, giza izaera hartu zenuen,
Birjina Amaren sabelean.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zuk, heriotzaren eztena garaiturik,
zeru-erreinuko ateak ireki dizkiezu fededunei.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu, Aitaren eskuinaldean jarririk zaude,
betiereko aintzan.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Sinesten dugu berriz etorriko zarela
diren guztien Epaile eta Jaun.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zatoz eta lagundu
zeure odol baliotsuaz erosi dituzunei.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Egizu, betiereko aintzan
zure santuekin batean bizitzera iritsi gaitetzela.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

7. Zorionekoak, Jauna

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Senideok: Egin diezaiogun otoitz
gizaki guztien atsedean eta poz-iturri den Jesus Jaunari,
eskerrak emanez,
bere erreinuko mahaira deitu gaituelako,
eta gizadi osoaren alde eskatuz.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:

The musical score is written in G major and 6/8 time. It consists of two staves. The first staff is a vocal line with lyrics: *Zuzendariak* Zo-ri-o-ne - ko - ak. *Denek* Zo - ri - o - ne - ko - ak, Jau-
na, zu - re e rrei - nu - ko ma - hai - ra dei - tu - ak.

Jesus Jauna,
Zuk gurutzean zeure burua eskaini zenuen,
gizon eta emakume guztiok bizia izan dezagun;

eta lantzak zulatutako zure bihotzetik
odola eta ura isuri ziren, handik zure Eliza sor zedin;
egizu Eliza hau santu eta errugabe
eta zure maitasunaren ezaugarri bizi.

✠. Zorionekoak.

✠. Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!

Jesus Jauna, gure bake eta adiskidetzaille,
gurutzeaz gorrotoa ezereztu egin zenuen
eta, zeure baketzearen bidez,
guztiok gizaki berri egiten gaituzu:
isur ezazu zeure Espiritua
gizadi osoa familia bat bera izan dadin
maitasunean eta batasunean.

✠. Zorionekoak.

✠. Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!

Jesus Jauna, gure bizi eta berpizte,
nekatu eta lanpetuentzat atsedean zara Zu:
bakardadearen, oinazearen
edo etsipenaren zamapean daudenek aurki zaitzatela,
zure erreinuaren pozean guztiok elkaturik,
esker onez gorets zaitzagun.

✠. Zorionekoak.

✠. Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!

Jesus Jauna, gizaki guztien argi eta salbamen,
Zuk dituzu betiko biziaren hitzak
eta Zu zaitugu zorion betera daraman bidea;
egizu, fedea argiturik biziaren hitz horiek entzun ditzagula
eta gure bizitzan zintzo bete.

✠. Zorionekoak.

✠. **Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!**

Jesus Jauna, Zuk heriotza ezereztu eta bizi berria ematen diguzu:
eskerrak ematen dizkizugu,
bizi-egarria ase ahal dezagun
bizia zabaldu eta laguntza ematen diguzulako;
egizu, biziera berri batean ibil gaitezela.

✠. Zorionekoak.

✠. **Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!**

Jesus Jauna, zeru-lurrek goستن zaituzten Jauna:
har ezazu gaur,
elkarte honek, Eliza osoarekin batean,
gogoz eta pozik eskaintzen dizun gurtza:
eta egizu, orain lurrean gurtzen zaitugunok
gorets zaitzagula betieran zeruan.

✠. Zorionekoak.

✠. **Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!**

8. Bai zorionekoak

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Senideok: egin diezaioGUN otoitz ogi bizia den Jesu Kristori.

—Kristo, itun berri eta betikoaren apaiz, gurutzean opari ezin hobe eskaini zenion Aitari: erakutsiezaguzu opari bera Zurekin eskaintzen.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:

Zuzendariak *Denek*

✚. Bai zo - ri - o - ne - ko - ak. ✚. Bai zo - ri - o ne - ko - ak, Jau-
 na, zu - re e - rrei - nu - an o - gi - a jan - go du - te - nak!

—Kristo, bakearen eta zuzentasunaren Errege handi, Zuk ogi-ardoak sagaratu zenituen zeure eskaintza adierazteko: ogi beraz janaritzen dituzunak, zure gorputzean bat egin ditzazula.

✚. Bai zorionekoak.

✚. **Bai zorionekoak, Jauna,
zure erreinuan ogia jango dutenak.**

—Kristo, zerutik jaitsitako mana, zure Gorputz-Odolez janaritzen duzu Eliza: janari honen indarrez ibil gaitzela.

✚. Bai zorionekoak.

✚. **Bai zorionekoak, Jauna,
zure erreinuan ogia jango dutenak.**

—Kristo, ikusten ez zaitugun gure otorduko mahaikide, atarian zaudena eta ate joka ari zarena, guregana etor zaitezela eta elkarrekin jan dezagula.

✚. Bai zorionekoak.

✚. **Bai zorionekoak, Jauna,
zure erreinuan ogia jango dutenak.**

9. Kristo, zeruko ogi

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Kristok bere afarira dei egiten digu guztioi,
eta afari horretan bere Gorputz-Odolak ematen dizkigu,
munduaren bizirako. Otoitz egin diezaigun berari.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:

Zuzendariak Denek

∇. De - nok ba - te - an es - ka - tzen di - zu - gu. ⚡. Kris -
to ze - ru - ko o - gi, e - ma - gu - zu be - ti - ko bi - zi - a.

—Kristo, Jainko biziaren Seme, eukaristi afaria zure oroigarri egiteko agindu zenigun: emaguzu zure misterioak zintzo ospatzea zure Eliza aberats dadin.

∇. Denok batean eskatzen dizugu:

⚡. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**

—Kristo, Goi-goikoaren apaiz bakar, apaizei eman diezu sakramentuak ospatzeko eginkizuna: egizu, beren bizitzan bete dezatela, sakramentuetan egiten dutena.

∇. Denok batean eskatzen dizugu:

⚡. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**

—Kristo, zeruko mana, ogi beretik jaten dutenak gorputz bat egiten dituzu: indar itzazu, Zuregan sinesten dutenen artean, bakea eta elkertasuna.

✠. Denok batean eskatzen dizugu:

✠. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**

—Kristo, zeruko sendagile, zeure ogiaz hilezkor egiten gaituzu, eta piztueraren itxaropenez betetzen: emaezu gaixoei osasuna eta bekatariei uste ona.

✠. Denok batean eskatzen dizugu:

✠. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**

—Kristo, berriro etorriko zaren Errege, zure heriotza adierazten duten misterioak, Zu etorri arte ospatzeko agindu diguzu: egizu, Zuregan hildako guztiak zure piztueran piztu daitezela.

✠. Denok batean eskatzen dizugu:

✠. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**


V. BEDEINKAPEN ESKARIA KANTUZ EGITEKO DOINUAK

1 *Zuzendariak*




Denek

∞. Jaunak bedeinka gai-tza - la e-ta gaitz guztietatik




zaindurik eraman gaitzala betiko bi - zi - ra. *Rz.* A - men.

2 *Zuzendariak*



Denek

∞. Jaun ahalguztidun erru-ki-tsu-ak, Ai-tak, eta Semeak, eta



Espiritu Santuak, bedeinka gaitzala e-ta zain-du. *Rz.* A-men.

VI. AZKEN AGURRA KANTUZ EGITEKO DOINUA

1 *Zuzendariak*

Denek Ψ . Zo - az - te Jau-na - ren ba-ke - an.

\Re . Es - ke - rrak Jain - ko - a - ri.

2 *Zuzendariak*

Ψ . Zo - az - te Jaunaren i - ze - ne - an e - ta ba - ke - an.

Denek

\Re . Es - ke - rrak Jain - ko - a - ri.

